

SAKONETAKO KIROL-GUNE BARRUKO IGERILEKUEN ERABILERA- PROTOKOLOA ETA -ARAUAK

Koronabirusak eraginda jasaten ari garen egoera dela eta, udal igerilekuen uretako jardueren eskaintza eta osasun-baldintza zorrotzak bateratzen dituen protokolo bat egin da, COVID-19a kutsatzea saihesteko.

Gauden une honetan, erabiltzaileek Sakoneta barruko igerilekuen instalazioak soilik erabili beharko dituzte **banakako errehabilitazio-, entrenamendu- edo igeriketa libreko ariketetarako (kontakturik gabe;** pertsona bakarra kale bakoitzean, eta entrenatzaile bakarra) edo kortxerek mugatu gabeko ur-eremuetan, unean-unean ezarritako edukiera aintzat izanik.

Instalazioetara sartzen denetik, irizpide orokorrak dira kontaktua saihestea eta une oro eustea pertsonen arteko segurtasun-tarte gomendatuari.

Irekierarako arau orokorrak

Berriro ireki aurretik, garbiketa-enpresa batek sakon garbitu eta desinfektatu ditu instalazioak, gai homologatuak erabiliz. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezartzen dituen osasun-baldintzak zorrotz betetzen dira, eta barne-kontrolak areagotu egin dira.

Egunero ireki aurretik, instalazioak eta elementu guztiak garbitu eta desinfektatuko dira.

Instalazioa ordubetez itxiko da, 15:00etatik 16:00etara, desinfekzio-lanak egiteko.

COVID-19ak eraginda positibo eman dutenek, sintomarik gabekoak izan arren, ezin izango dira kirola egiten hasi.

Erabiltzaile guztiak sintomen zaintza aktiboa egitea gomendatzen da. Edozein sintoma izanez gero, edo kutsatuta dauden susmoa edo kutsatutako pertsonekin kontaktuan egon diren susmoa izanez gero, jarduera saihestu, eta berehala jarri behar dira harremanetan osasun-zerbitzuekin, haien jarraibide guztiak betetzeko.

Kirol-instalaziora sartu aurretik tenperatura kontrolatzea gomendatzen da.

Erabiltzaileek zorrotz zaindu behar dituzte norberaren garbitasuna, jokabidea eta ardura, kutsatzea saihesteko.

Nahitaezkoa da txankletak, eta igeri egiteko txanoa eta betaurrekoak erabiltzea.

Kirola egin aurretik eta ondoren, oso garrantzitsua da eskuak ur eta xaboiz edo gel hidroalkoholikoz garbitzea. Erabiltzaile bakoitzak bere gel-potea eramango du prebentzio-neurri gisa. Era berean, gel horiek instalazioaren hainbat eremutan egongo dira.

Irekitzeko eta erreserbatzeko ordutegia

Igerilekuak 07:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Instalazioa itxita egongo da 15:00etatik 16:00etara itxita egongo da higiene- eta desinfekzio-lanetarako.

Jardunak ordubeteko iraupena izango du (instalazioan sartu eta irteteko ezarri den denbora), eta araudiak ezartzen duen bezala, alde zurretik hitzordua eskatuta erreserbatu behar da.

Erreserba egin ondoren, egun horretan bertan eta hurrengoan, ezingo da erreserba berririk egin Sakonetako barruko igerilekuetarako, baina irekita dauden gainerako jardueretan erreserbak egin ahal izango dira.

Egunean bertan, ordubeteko txanda bakarrik erreserbatu ahal izango da.

Erreserbak banakakoak izango dira, hau da, abonatu zenbaki bakoitzeko. 4 urtetik beherakoek abonurik gabe erabili ahal izango dute igerileku txikia, baina erreserba abonatua den eta adingabeari lagun egiten dion adindunak beharko du.

Era berean, dibertsitate funtzionala duten abonatuak lagun egiten dion norbaitekin ere sartu ahal izango dira, pertsona horrek udal kirol instalazioetarako abonurik eduki behar gabe.

Jardunari buruzko arauak

Bete itzazu beti jardueraren ordutegiak.

Igerileku handiko erabiltzaileen kopurua kaleko bat izango da orduro, eta igerileku horretako eremua sei (6) kalekoa izango da. Gutxieneko segurtasun-tartea bermatuko da beti.

Igerileku txikiko erabiltzaileen kopurua kaleko bat izango da orduro, eta igerileku horretako eremua bi (2) kalekoa izango da. Une oro bermatuko da erabiltzaileen arteko gutxieneko segurtasun-tartea.

Erabiltzaileek maskara jarrita sartu beharko dute kirol-gunera. Sarbide-mahaian kudeaketa bat egin behar izanez gero, lurlean adierazitako urruntze-seinaleak aintzat hartuko dira.

Aldagelak irekita egongo dira edukiera mugatuta dutela, dutxak bezala, eta segurtasun-tarteari eutsiko zaio une oro.

Armairu multzo bat irekita geratuko da, txanda bakoitza amaitzean kenduko dena, eta hala, txanda bakoitzean, desinfektatuta dauden armairuak izango dituzte eskura.

Ur-iturriak zigilatuta daude. Kirolari bakoitzak, beharrezkotzat joz gero, berak bakarrik erabiltzeko ur-botila edo edari isotonikoa eraman behar du.

Nahitaezkoa da igerilekuko txankletak jarrita irtetea aldagelatik eta desinfektatzailedun alfonbratxotik igarotzea, igerilekuko esparrura zuzenean sartzeko. Nork igeri egiteko bere materiala erabiltzea gomendatzen da.

Erabiltzaileek ez dute beren artean inolako materialik partekatu edo trukatu behar (toallak, botilak, edariak, betaurrekoak, oholak edo igeri egiteko bestelako kirol-materiala). Bainujantziak, eta toallak, txanoak eta beste material guztia garbitzea gomendatzen da.

Saihestu beste pertsona batzuk nahita ziprizzintzea edo plisti-plasta ibiltzea.

Igerilekuko esparru barruan, sartzeko eta irteteko zirkulazioa seinaleztatuta eta berezita egongo da, segurtasun-neurriak bermatze aldera.

Guztiz beharrezkoa da instalazioa uztea kirol-jarduna amaitu bezain laster, kontaktu fisikoa eta arriskua saihesteko.

Ahal dela, ez dira ukituko sarbideko ateak, barandak eta gunek komunak.

Erreserba duten erabiltzaileak bakarrik sartu ahal izango dira instalaziora; ez da lagun egiten duen pertsonarik onartuko, osasun-arauan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat edo 4 urtetik beherakoentzat ezarritakoa izan ezik.

Garrantzizkoa

Ezarritako segurtasun- eta higiene-arau eta -protokolo guztiak betetzeak zure eta besteen osasuna babesten du.

Ahalik eta ardurarik eta zuhurtasunik handiena eskatzen da, eta kutsatzeko arriskua gutxitzea lehenetsiko da beti.

Gomendio horiek osasun-agintarien jarraibideen baitan egongo dira une oro.